

LAUAXETA JESUSEN LAGUNDIAN

ARGITASUNEN ITURRIAK

Artikulu hau idazten hasi baino lehenago ohar bat egin nahi nuke. Hemen agertzen diren argitasun asko eta asko Felix Korta Oiartzabal (1907an sortua) eta Leon Lopetegi (1904an sortua) azpeitiarrei eta Bianako Daniel Gaston Gonzalezi (1907an sortua) zor dizkiet.

Hirurak izan ziren josulagun eta hirurak nobiziatutik Lauaxetaren lagunak eta ikaskideak. Lauaxetaren heriotzari buruzko zertzeladak Alfonso Moreno Bilbaok esan zizkidan. Hau eta Felix Korta urte luzeetan Bilboko Corte Inglesen ondoan dagoen jesuiten egoitzan bizi izan ziren.

Daniel Gaston, Lopetegi eta hirurok, berriz, luzaro batera bizi izan ginen Deustu Unibertsitatean.

Daniel Gastonek ez zekien euskaraz. Metafisika irakaslea zen Filosofia Fakultatean. Pertsona leiala, zintzoa eta "gentleman" bat zela aitortzen dute ezagutu zuten guztiek.

Literaturaz oso axolatua ibiltzen zen. Elkarrekin hizketaldi luzeak izaten genituen Deustu Unibertsitateko geure egoitzan. Bere bizitzako azken aldian "eleberri beltzaz" erabat zaletu zen.

Maiz neure langelako giltzak uzten nizkion, han ditudan literatura liburuetatik nahi beste hartzeko.

Leon Lopetegi, berriz, bi hankako entziklopedia bat zen. Urte mordoan *Siglo de las Misiones*ko zuzendari izan zen. Harritu egiten gindun bere jakinduriarekin. Historia eta geografia kontuetan horrenbeste zekienik gutxi ezagutu dut.

Gerra zibilaren ondoren, “Jesusen Bihotzaren Deia” aldizkaria bigarren aldiz argitaratzen hasi zenean, Felix Korta aldizkariaren buru egin zuten. Euskaltzale bipila zen.

Hiruak zenduak dira. Goian beude!

JESUITEN IKASKETAK

Gauza jakina da Lauaxeta josulagun izan zela. *Josulagun* hitz honetaz argitasun bat. Guk jesuitok, geure artean horrelaxe deitzen genituen geure buruok: *josulagun*. Eta “Compañía de Jesús” adierazteko, “Jesusen Lagundia”.

“Jesuita” hitza ere maiz erabiltzen genuen eta dugu. Euskaraz idazterakoan, baina, “josulagun” sarriago erabiltzen genuen geure gazte denboran.

Artikulu hau hobeki ulertzeko, josulagunon ikasketak nola izaten ziren azalduko dut. Lauaxetak, Lagunditik ilki arte, hemen zehaztutako ikasketak egin zituen. Nik neuk ere ikasketa guzti-guztiok harrapatu nituen.

Jesuita sartu eta bi urte nobiziatuan ematen dira. Nobizioek, denborarik gehiena izpirituzko lanetan jardun arren, latina ere ikasten zuten.

Hurrengo ikasketei “junioratua” zeritzan. Loiola zen ikastetxea. Aldi honetan literatura klasikoa ikertzen zen. Greziar eta erromatar idazle klasikoak irakurtzen zituzten. Bai eta munduko idazlerik onenak: Shakespeare, Cervantes, Dovstoevsky...

Bi, hiru edo lau urte igaro zitezkeen junioratua egiten. Urte gehiago ala gutxiago, aurretik ze ikasketa zenituen arabera izaten zen. Ongi jantzita zeudenek urte gutxiago egiten zituzten.

Gero filosofia ikasketak zetozen. Hiru urte filosofia klasikoa edo "escolastica" ikasten eman behar. Oñan ikasten zuten. Eskolak latinez ziren.

Filosofia bukatu eta bizpahiru urte josulagunon ikastetxe baten igarotzen zituzten. Josulagunek aldi horri "maisutza", "magisteritza" deitzen diote. Ikastetxean nagusiek ikusi egiten zuten josulagunak zer-nolako izaera zeukan.

Orixeri, adibidez, magisteritza bukatu eta josulagun izateko ez zuela balio esan zioten.

Magisteritza ondoren lau urteko teologia zettorren. Hirugarren urtea bukatu eta apaiz egiten ziren. Apaiz egiterako 32 bat urte bazuten jesuitek.

LAUAXETAREN BIZITZA

Esteban Urkiaga, Lauaxeta, Laukizen sortu zen (1905-VIII-3). Ume koxkorretan, ordea, Mungiara aldatu zen familia osoarekin.

1916an Durangoko josulagunen ikastetxera joan zen. Barnetegia zen eta Gauonetan eta udan bakarrik itzultzen ziren etxera. Hortxe gaitzen ziren geroago apaiz izango ziren gazteak. Ikasketa orokorrak ziren, bai humanitatezkoak eta bai zientziazkoak.

Durangoko egonaldiaz ez dut uste asko idatzi denik. Jakingarria izango litzateke, ordea, gehiago aztertzea, ahal izanez gero. Gogoan eduki behar da, Durangoko ikastetxe horrek, gerla zibila zela eta, gorabehera handiak izan zituela.

Nobiziatua

Lauaxeta 1921ean (uztailaren 30ean) josulagun egin zen Loiolan. Nobiziatuan arimako zuzendari, hots, josulagunek “Aita Maisu” deitzen dutena, Tolosako Martin Garmendia izan zuen, euskara gartsuki maite zuena.

Euskaltzale talde bikaina osatu zen nobiziokideen artean. Aipatu ditugun Lopetegi eta Kortaz gainera, Elantxobeko Ibiñagabeitia Andima, Lesakako Frantzisko Sarobe, Plazido Mugika eta Arrasateko Jokin Zaitegi ere han aurkitzen ziren.

Apaiztegi eta komentuetan euskaldunak bildu direnean, maiz elkarri bihotz eman eta euskaltzale bikainak sortu izan dira.

Zalduby eta Elizanburu, adibidez, Larresoron euskaltzaletu ziren.

Frantziskotarretan Pablo Agirrebalzategik, Jose Azurmendik, Joseba Intxaustik eta Juan M. Torrealdaik osatzen zuten taldea aspaldi nabarmendu zen Euskal Herrian.

Karmeldarren artean ezagunak ditugu Santi Onaindia, Lino Akesolo, Julen Urkiza, Luis Baraiazarra eta Patxi Uribarren. Lan txalogarriak burutu dituzte.

Lauaxetaren lagunetarik Andima Ibiñagabeitiak (Elantxobe 1907 - Caracas 1967) Jesusen Lagundia utzi egin zuen eta Venezuelara aldaratu zen. Beti euskararen alde kalipu handiz lan egingo du.

Frantzisko Sarobe (Lesaka 1906- Tuteran 1950) euskaltzale eta gizon saildua zen. Nortasun handitako kristaua. Guztiek begirune zioten, Felix Kortak esaten zidanez. Santu ohoretan hil zen Tuteran. Sunbillako erretore den eta zilarrezko ahotsa duen On Basilio Sarobe euskaltzalearen anaia zen.

Frantzisko Sarobek *Jesusen Bihotzaren Deian* idazten zuen euskaraz, “Gazi-gezak” sailean. Olerkiak ere burutu zituen.

Denetan Jokin Zaitegi (Arrasate 1906-Donostia 1979) zen euskaltzalerik sutsuena. Gizon jatorra eta ausarta, bere bizitza osoa Jaungoikoaren eta euskararen alde emango zuena.

Gerra zibila bukatu eta abertzale zelako, Ameriketara alde egin behar izan zuen. Ez zen bakarra izan. Arrazoi berberagatik beste jesuita batzuek ere Euskal Herria utzi behar izan zuten Ameriketara: Agirrezeziagak, Maguregik, Atutxak, Jorge Agirrek..

Giroa Francoren aldekoa zen. Gogoan eduki behar da, Errepublikak lege gogorrak eman zituela jesuiten kontra. Jesuita askok alde egin behar izan zuten atzerrira.

Franco Errepublikaren kontra jaiki zenean, salbatzaitzat jo zuen jesuita askok.

Francoren kontra egiten zen guztia txarra zen. Haren alde egiten zena ona.

Adibide bat. Gerla zibilaren denboran Arsuaga josulaguna gudarien kaperau ibili zen. Norbaitek salatu egin zuen Erromara. Erromatik agindua etorri zitzaien jesuita nagusiei, gudarien kaperau izatea ez zela komeni.

Francoren soldaduekin josulagun asko ibili zen kaperau. Horien kontra ez zen salaketarik izan.

Franco buruargia zen eta jesuiten onginahia irabazteko, berehalaxe haien kontrako lege guztiak desegin zituen.

Zaitegi Ameriketara irten egin zen Jesusen Lagunditik. Hil arte, apaiz lanetan jarraitu zuen.

Guatemalan "Euzko Gogoa" aldizkaria atera zuen (1950). Francoren denboran hauxe genuen euskaraz idatzitako aldizkari bakarra. Zaitegik aldizkaria Euskal Herriko Iparraldera igortzen zuen. Beste batzuen lana zen Iparraldetik ezkutuan Hegoaldean sartzea.

Gu zain egoten ginen, "Euzko Gogoa" noiz etorriko. Gure izterbegiek euskara menperatzeko ahalegin guztiak egiten zi-

tuzten garai goibel hartan, aldizkari horrek bihotza altxatzen zigun.

Nik neure mendean euskaraz idatzi dudan lehendabiziko artikulua “Eusko Gogoa”n idatzi nuen.

Zaitegi Ameriketatik itzuli zenean, harekin egoteko era izan nuen. Deustu Unibertsitatera etortzen zen bere liburuen propaganda egitera. Batez ere euskaratu zituen Platonen lanak zabaldu nahi zituen.

Arrasatek gizon ospetsuak izan ditu. Horien artean Jokin Zaitegi.

Loiolan eta geroago Oñan beste lagunok ere izan zituen Lauaxetak: Plazido Mujika, Migel Mari Zubiaga, Erraimun Argarate eta Gillermo Larrañaga.

Plazido Mujika ospetsua da. Batez ere bere *Diccionario Castellano-Vasco* zoragarriarengatik. Euskaraz eguzkiz eguzki idazten jarduten dugunok, ongi dakigu zein mesedegarri den. Ez dago horren parean ipini litekeen beste *Castellano-Vasco* hizteirik. Ez eta hurrik emanik ere.

Hiztegi askok hori izan du iturri, aipatu egin ez badu ere.

Pasadizo bat gogoratzen zait. Behin, Euskal Filologiako ikasleei hitzaldi egitera, Deustu Unibertsitatera euskal idazle entzutetsu bat ekarri nuen. Hitz egiten ari zela, honela esan zuen:

“Nik neure eleberrietan “tener hambre” hamar modutara esaten dut. Eta ez pentsa neuk asmatutako moldeak direnik, ez. Moldeok... [ezbaian egon zen une batez]... Azkueren hiztegitik atera ditut”.

Nola aterako zituen Azkueren hiztegitik moldeok? Seguru asko Mujikatik atera zituela, han baitaude garbi asko. “Hambre” hitzean begiratzea, besterik ez zuen behar.

Bere burua goratzeko, ordea, Azkue aipatzea hobe zela iruditu zitzaion.

Ni eta beste josulagun batzuk, Mujikari esker bereziak eman beharrean gaude. Geure haur denboran euskara debekatua genuen Gipuzkoako herrixketan. Francoren urterik larrienak ziren. Eskolan ez zegoen euskaraz ikasterik, ez hitz egiterik.

Gero batxilergoa egitera Durangoko jesuiten ikastetxera joan nintzen, Lauaxeta ikasi zuen ikastetxera, hain zuzen ere. Han ere gauza bera. Edoskitzen genuen kultura oso-osoa espainolez zen.

Hantxe, Durangon, euskaltzaletu nintzen ni, ordea, hamabi urterekin. Alboan neuzkan euskaltzale batzuei esker.

Orduantxe lehendabiziko aldiz egin nion galde neure buruari: “Ni zer naiz, euskalduna ala espainola?”

Josulagun sartu ginenean hasi ginen euskaraz idazten. Lehengo maisua Plazido Mujika izan genuen. Nik anarteraino bakar bakarrik geure etxean ikasitako euskaraz egiten nuen. Plazidok norabide berriak erakutsi zizkigun. Ostegunero biltzen ginen euskaldun talde bat, gramatika eta, ikasteko.

Plazido Mujikaz haxe esan behar dut, noiz edo behin haren biografia osatuko bada ere.

Plazidok, oso buruargia izan arren, bi urteko haur batek baino malezia gutxiago zuen. Neure mendean bakan ezagutu dut holakorik. Haren xaloa!

Gertatzen zitzaion guztia kontatzen zuen, aingerutxo batek bezala. Iparraldean laborariek erraten duten bezala, ez zuen “gibelego bortarik”.

Guregana etorriko zen goizean eta esan: “Bart zer gertatu zaidan ez dakit. Seietan iratzarri naizenean, hankak burkoaren gainean neuzkan eta burua ohe barrenean”.

Neure denboran josulagun langile diziplinatu eta zartadatsu asko ezagutu dut. Gutxi Plazidoren mailakoak.

Castellano-Vasco hiztegia nola egin zuen harrigarria da. Oinetako kaxetan sartzen zituen eskuz idatzitako txarteltxo-

ak. Orduak eta orduak, asteak eta asteak, urteak eta urteak eman zituen hiztegi hori egiten.

Denbora ez galtzeko, gelako atean, kanpoko aldetik, ohar bat ipinia zuen, baketan utz zezaten: "Lanean".

Gu halere sartu egiten ginen haren gelan eta idazten ikusten genuen, burua makur, hatsa hartzeko ere betarik gabe.

Ez dut uste bat ere izan denik, Mujika ezagutu eta maite ukan izan ez duenik.

Migel Mari Zubiagaz (Segura, 2003) onespenez mintzatu behar naiz. Neure denboran euskaldun gutxi ezagutu dut euskaraz horren ederki hitz egin eta idazten zuenik.

Lauaxetaren segurar ikaskide honek bere bizitza osoa misio ematen eman zuen Euskal Herriko Hegoaldeko bazter guztietan. Haurtzarotik euskaraz ongi bazekien ere, gero bere misioetan toki askotako euskara ikasi zuen.

Guk, josulagun gazteok Loiolan dotrinako haurrekin txangoren bat antolatzen genuenean, diru eske Zubiagarengana jotzen genuen. Beti zen bihotz zabal, batez ere euskara tartean bazen. Euskaltzale zintzoa.

Idatzi zituen liburuek haren maisutasuna erakusten digute. Hark bai gauzak bikain esan!

Euskaraz ongi idatzi nahi dutenei, nik haren liburuak irakurtzeko aholkatuko nieke: *Zorion bidea*, *Aurrera beti*, *Indariturria*, *Goizeko izarra*...

Urretxuko Raimundo edo Erraimun Argaratek Jesus'en Biotzaren Deya'n olerki batzuk idatzi zituen eta prosaz ere zenbait lan.

Leon Lopetegik esaten zidanez, Erraimun bai olerkietan eta bai hitz lauz oso antzatsua zen.

Filipinasetan urte mordoa eman zuen misiolari. Gero Loiolara etorri zen. Hantxe ezagutu nuen. Gizon jatorra, alaia,

potoltxo, adiskidetsua zen. Euskaltzale fina. Ahots zoragarria zuen. Gustura entzuten genion kantatzen.

Gillermo-Gillen Larrañaga (1905ean sortua) azkoitiarra Tuterako gure ikastetxean ezagutu nuen. Itzulpen jakingarriak egin zituen. Horien artean *“Milla ta bat gauetako ipuiak”*.

Caracas-en bizi izan zen eta *Venezuela* ko matxinadak amazortzigarren gizaldian burutu zuen.

Nik Guillermo batez ere here irakaskintza liburuengatik ezagutzen nuen. Batzuk ez zituen argitaratu. *Kimika* bai.

Beti eduki zuen euskara aintzakotzat.

Hilario Gaztelumendi (1903an sortua) Oiartzungo seme zenuen. Euskaltzale adoretua. Zoragarri egiten zuen euskaraz. Nik atsegin handiz entzuten nizekion predikuak. Sermolari hagitx estimatuta zen Gipuzkoan batez ere.

Abertzale zela eta, alde egin behar izan zuen Huescara eta Javierrera. Ez dut uste gauza handirik idatzi zuenik.

Eta ezin dut bazterrean Jose Goenaga (1903, Azpetian) utzi. ARGIA aldizkarian idazten zuen, izenordez eta oso ongi. Lizardik ARGIAN Goenagaren ipuinak irakurri eta mireshenez nor zen jakin nahi izan zuen. Ez dut uste jakin zuenik. Ia ehun urterekin hil zen.

Felix Kortak, Zubiagak, Gastonek... denek esaten zidaten Lauaxeta lotsati eta izutia zela. Dena barnean igarotzen zuena

Junioradoan

Nobiziadoa egin ondoren, 1923an, Loiolan bertan “junioradoa” egiten hasi zen Lauaxeta, hots, ikasketa klasikoak. Hiru urte emango ditu ikasbide honetan.

Besteak beste, Homero, Demostenes, Sofokles Virgilio, Horazio, Ciceron aztertzen zituzten.

Lauaxeta latinez oso ederki mintzatzen omen zen. Eskola asko latinez irakasten ziren eta atsedendietan ere latinez hitz egin beharra zegoen. Ezin euskaraz edo gazteleraz egin.

Junior guztiek sermoi bat latinez egin behar zuten. Sermoi hori jantokiko pulpitutik egiten zen, bazkal denboran, beste denak isil-isilik jaten ari ziren bitartean.

Lauaxetak, Ibiñagabeitiak eta Zaitegik egindako latin poesiak irakurri nahi dituenak, jo dezala Patxi Altunak idatzitako liburura (Ikus Bibliografia)

Inazio Errandonearekin ikasi zituzten greziar tragediak. Horien artean Edipo, Elektra eta Antigona.

Aita Jose Maria Estefania izan zuten erromatar poeten maisu. Estefania Loiolan 1924tik 1932ra arte egon zen irakasle. Literaturan oso ongi jantzia zela maiz entzun nion nirekin bizi izan zen Zeanuriko Anton Arzari eta Estefaniaren beste ikasle askori ere bai.

Estefania, euskaraz ikasi ez ezik, euskararekin oso zaletu zen. Euskaldunak euskaraz idaztera bultzatzen zituen.

Lauaxetaren eta Orixeren baitan (Lizardiren baitan ere bai) eragin handia izan zuen Estefaniak. Patxi Altunak aztertu du alderdi hau [Ikus bibliografia].

Bestela ere Lauaxetaren garai hartan Raimundo Olabide (bibiaren itzultzailea), Francisco Apalategi (*Euskal mutillak armetan*) eta Zeanuriko Juanjo Goikoetxea Loiolan zeuden irakasle. Denak euskaltzaleak. Gazteek, euskal gaiez zerbait galdetzeko, bazuten nora jo.

Apalategi zuzendari zutela eta Estefania laguntzaile, 1923an *Academia Vasca* sortu zuten juniorrek. Euskara lantzeko elkar-
tea zen. Ordurako Oñan, jesuiten teologia etxean, bazen horren antzeko beste Academia Vasca. Lauaxeta Oñara aldatuko denean, han sartuko da.

Daniel Gastonek junioradoan erabiltzen zuten zenbait liburu aipatu zidan:

- Kleutgen, Joseph S.I.: *Ars dicendi Priscorum, potissimum praeceptis et exemplis. Illustrata a Josepho Kletugen.* Silvae Ducis, Verhoeven Frates, 1855

- FITZ MORITZ KELLY: Historia de la literatura española

- JUNGSMANN: Literatura universal

- MENEZDEZ Y PELAYO maiz irakurri eta oso estimatua zuten.

- JUNGSMANN, Jose: *La belleza y las bellas artes según las doctrinas de la filosofía socrática y de la cristiana.* Madrid, Tip. del Asilo de Huérfanos del Sagr. Corazón de Jesus, 1881

Leon Lopetegik beste testu batzuen berri eman zidan:

- GOMEZ BRAVO: *Poesía española y americana.*

- *Modelos de literatura castellana en prosa y verso* escogidos por el P. Vicente Agusti, S.I. Hirug. argit. 1908

Lauaxeta junioradoan bihurtu zen euskaltzale, Jokin Zaitegiren eraginez batez ere. Aldi horretan idatzi zuen bere lehenbiziko olerkia, josulagunek Bilbon ateratzen zuten *Jesusen Biotzaren Deia* aldizkarian.

Behin junior euskaltzale batzuk elkarrekin bilduta zeudela, batek (Zaitegik, uste dut) "Gora Euskadi askatuta" oihu egin zuen.

Juniorren aita ministroak, Inazio Errandoneak, horren berri izan zuen eta txit haserretu zen. Euskaldunei herrietan gogor egin zien.

Loiolako argitasunen artean, nahitaezkoa da Leon Lopetegik Lauaxetaz kontatzen duena aipatzea. Hitzez hitz artikulua honetara aldatuko dut.

Garbi azaltzen dira bi alderdiok: Lauaxetak euskarari zion maitasuna eta sentibera zela.

Honatx Lopetegik idatzitako eta niri utzitako lerrook.
Erdaraz dago eta dagoen bezala dakart.

"Episodios curiosos de mi vida en este aspecto"

Ha habido algunos que han cobrado todo su interés después de algunos años. Recordemos en primer lugar este episodio de premonición trágica, que tuvo el famoso Urquiaga (Lauaxeta), cuando estudiábamos retórica en Loyola a fines de 1923 o principios de 1924.

Había dado el entonces reciente obispo de Vitoria, Fr. Zacarias Martinez, agustino, unas disposiciones sobre la enseñanza del catecismo en su diócesis, y exigía mucha preferencia por el castellano, incluso a los niños euskeldunes.

No recuerdo los términos exactos de esas disposiciones, pero hay que hacer notar que se dieron pocos meses después del comienzo de la dictadura de Primo de Rivera, en Setiembre de 1923.

En cierta ocasión comentábamos en el recreo de la noche de uno de aquellos días de invierno lo que no considerábamos digno de acierto, desde el punto de vista del respeto debido a las diversas lenguas vernáculas para el bien de las almas, y participábamos en la conversación Lauaxeta y un servidor, que nos oponíamos a lo que tenía de partidista aquella disposición, y otros no euskeldunes, de cuyo nombre no me acuerdo, y que defendían más bien la postura del Obispo en este punto, pero no precisamente desde el punto de vista apostólico.

Nosotros nos opusimos y tratamos de explicar todo aquello. Lauaxeta, que era muy impresionable, se excitó por lo visto más de lo que yo había supuesto.

Hay que tener en cuenta, que el poeta fue algún tiempo sonámbulo, y que por eso tuvo como compañero de cuarto al que luego fue P. Marticorena, del que nos acordaremos después, pues era muy sereno y forzado, por si hiciera falta en alguna ocasión enfrentarse con el Lauaxeta sonámbulo.

A la mañana siguiente a nuestra pequeños discusión, se me presentó el poeta en mi cuarto, y llamándome a la puerta, como lo hacía siempre, me contó su pesadilla de aquella noche.

Soñaba que había comenzado una guerra civil en toda España, desde los Pirineos a Cádiz, y que 'también participábamos nosotros'.

Y así había estado dándole vueltas a esa idea que le había desazonado y de la que todavía se notaba la impresión recibida. El lo atribuía a la conversación sostenida la noche anterior y al brío con que había sostenido su punto de vista.

Cuando al cabo de los años, Lauaxeta fue hecho prisionero en Gernika y fusilado en Vitoria, me acordé de esta especie de premonición profética que ya había recibido y que tan tremendamente cierta iba a resultar para él".

Filosofian

1926an Loiola utzi eta Lauaxeta filosofia ikasketak egitera, Oñara (Burgos) aldatu zen.

Han, filosofia ikasi bitartean, Frantziako poeten irakurle kartsua egin zen. Eta oso bertsozale. Francis Jammes eta Baudelairen zenbait olerki euskeratu zuen (Ikus *Eusko Olerkiak*. Poesias Vasca, 1930, 12-14 orr.)

Daniel Gastoni esker argitasun jakingarri batzuk jaso ditut.

Lauaxetak Heine irakurtzen zuela. Bai eta Alfred de Musset, Gerra Junqueiro, Goethe, Andreiev, Eichendorf eta Homero. Gastonen ustez Homerok eragin handia du Lauaxeta baitan.

Lauaxetak Leopardi oso maite zuela esaten zidan Daniel Gastonek. "Il passero solitario"k eta "L'Infinito"k zirrara handia egin ziotela aitortu zion Lauaxetak berak.

Gastonek gertakizun hau kontatu zidan. 1928 urtea zen eta Gaston eta Lauaxeta Oñan zeuden, filosofia ikasten.

Esan dudanez, Gaston bera oso literatura zalea zen eta liburutegitik Leopardiren liburu bat atera zuen. Lauaxetarekin mintzatu zen liburu hartaz eta hark uzteko eskatu zion. Horrela egin zuen Gastonek.

Luzaro gabe, ordea, Lauaxetak utzi egin zuen Jesusen Lagundia eta Oñatik alde egin zuen. Lauaxetaren gela garbitzerakoan, Leopardiren liburua agertu zen. Gastonen izenean baitzegoen, liburuzainak erasiatu egin zuen, liburuak elkarri uztea debekatua zegoela eta.

Arestian esan dudanez, Lauaxetak ez zituen filosofia ikasketak bukatu. Jesusen Lagunditik irten zen 1928an.

Ez dago zuzen, beraz, *Elbuyar, Hiztegi Entziklopedikoak* ematen duen argibidea (1077 or.): Lauaxeta “apaiztu zenean Bilbora joan zen”.

Lauaxeta ez zen sekula apaiz izan. Apaiz izateko filosofia urte bat ments zuen, hiru urte majisteritza eta hiru urte teologia. Halaxe bada, jesuita jarraituz gero, zazpiren bat urte falta zituen apaiz izateko.

Gastoni maiz galdetu nion zergatik irten ote zen. Bi arrazoi ematen zizkidan:

Lehendabizikorik: “Apaiz izateko baino poeta izateko indar handiago sumatzen zuelako”.

Lauaxetak aspalditik nabaritzen zuen bere baitan literatura-arentzako zaletasuna. Zaletasun hori josulagun izateko zaletasuna baino handiago zela konturatu zen eta utzi egin zuen Jesusen Lagundia.

Bi indar horiek noiz eta behin elkarren kontra jardun lezaketela garbi dago. Gracian eta Coloma larri ibili ziren, Jesusen Lagundia utzi ala ez. Frauka-k utzi egin zuen eta beste askok ere egin du bere baitan gogoeta hori, jarraitu ala irten.

Bestalde, Lauaxetak etorkizuna beltz ikusten zuen. Jesusen Lagundian ez baitzuen, guztira, euskararentzako maitasun handirik hautematen.

Lauaxetak sufritu egiten omen zuen josulagun askoren artean euskararenganako zabarkeria ikusita. Erdal giroan bizi behar.

Andima Ibiñagabeitia baitan ere, Jesusen Lagunditik irteteko arrazoi honek pisu handia izan zuen. Jesuita eta euskaltzale batera izatea zaila zela iruditzen zitzaion.

Lauaxetak, aldiz, Gastonen ustez, bere burua erdaraz baino hobeki adierazten zuen euskaraz.

Nik, egia esan, azken puntu honetaz duda handia egiten dut, Lauaxetak, jesuita sartu zenean, euskara ia ahaztua baitzuen eta nolabait ere euskaldun berria baitzen. Jesuita ikasketak, berriz, latinez eta gazteleraz egin zituen, ia guzti-guztiak.

Ez dut inondik ere ikusten aldi hartan Lauaxetak euskaraz erdaraz baino hobeki zekienik. Hori bai, Jesusen Lagunditik atera eta euskaraz erdaraz baino gehiago idatzi zuen eta trebatu ere, ongi trebatu zen.

Lauaxeta jesuita zeneko argazkiren baten bila erotua ibili naiz. Ez dut aurkitu. Baziren, seguru asko. Felix Kortak esan zidanez, berak ere hazuen. Puskatu egin zuen, ordea.

Hemen argitasun bat ematea komeni da. Lauaxeta eta Orixe biok izan ziren josulagun eta biok utzi zuten Jesusen Lagundia.

Bion artean alde handia dago, baina. Lauaxeta bere nahiez atera zen Jesusen Lagunditik.

Orixe, oster, egotzi egin zuten. Berak jarraitu nahi zuen josulagun. Nagusiek uste izan zuten, halere, jesuita izateko ez zuela balio, beraren izaera kalkarragatik.

Orixeren bizitza eta lana ez dago ulertzerik puntu hau gogotan eduki gabe.

Orixek bere bizitza osoan eduki zuen bihotz zolan arantza hori sartua. Lagunditik ilkitzera behartu zutela.

Gure artean, josulagunon artean, bazen sinesmen bat: josulagun hiltzen zena salbatu egiten zela. Santa Teresak ere zeruko ikusmen baten ondoren horixe esan zuen: "Jesusen Lagundian hiltzen diren guztiak zeruratzen dira".

Bestalde, Jesusen Lagunditik ateratzea ez zen scinale ona. Jainkoaren eskutik alde egitea bezala zen.

Orixek kezka hori izan zuen beti. Ea salbatuko ote zen. Horregatik bere mende guztian zintzo-zintzo jokatu zuen, infernurako bidetik ahalik eta urrutienik ibiltzeko.

Bere lan guztietan "Jainkoaren billa" ibili zen. Eleberriren bat egiteko eskatu ziotenean, hura bere bidea ez zela erantzun zuen.

Maiz esan zioten ea ez ote zuen apaiz izan nahi. Berak ezetz: "Nik josulagun hil nahi nuke". Horixe zen bere irrika sakona.

Orixek Jesusen Lagunditik zergatik bota zuten ez dago garbi. Egia jakiteko, esaera zaharrak dioen bezala, bi alderdiei entzun beharko zitzaaien. "Zegik (ez egin) ezer Hendorea (alkate) entzun artean bestea". Orixeri eta josulagun nagusiei aditu beharko genieke. Eta orduan ere, kontua garbi geldituko litzatekeen ez nago ziur.

Nagusiek Lagunditik egozteko eman zituzten arrazoiak gordeak daude artxiboetan. Sekretu handia da, ordea, eta ez dago artxibo horietara hurbiltzerik.

Lauaxetak, Jesusen Lagunditik jalgi eta soldadutza egin beharra izan zuen Garellanon.

1930ean Euskaltzaleek Errenderin antolatu zuten lehenbiziko "Euskal Olerki" egunean "Maitale kuttuna" olerkiaz lehen saria irabazi zuen.

Txapelketa honetan lehiakide ospetsuak izan zituen: Lizardi, Orixek, Jaurtarkol, Loidi, Zugasti, Enbeitia.

Olerki egun hauen antolatzaile Aitzol zen, euskal Olerkiaren eragilea.

"Maitale kuttuna"z hauxe esango nuke. Deustu Unibertsitatean, Euskal Filologiako ikasleei askitan azaldu izan diet olerki hau. Ez da Lauaxetaren onenetakoa. Emakume tradizionalaren, elizkoiazen eta zintzoaren ereduak goratzen zenez gero, ordea, epai mahaikideek oso gogarakoa izan zuten.

Hurrengo urtean (1931) *Euzkadi* (1913-1937)ko “Euzkel Atala”ren ardura berak hartu zuen, anarteraino Orixek zeukana. Noiz behinka olerkiren bat ere idazten zuen.

1931an *Bide barriak* olerki bilduma argitara zuen eta lau urte geroago (1935ean) *Arrats heran*.

Bestalde, *Euzkadi*, *Euzkara* eta *Yakintza* aldizkarietan idazten zuen.

Ipuingintzan eta antzerkigintzan ere aritu zen. Itzultzeari ekin zion noiz eta behin. Onaindiaren liburuan (*Urkiaga'tar Estepan "Lauaxeta". Olerki guztiak*) aurki liteke beraren zenbait itzulpen.

Gu lan honetan ez goaz Lauaxetaren lana aztertzeraz.

Lauaxeta 1937ko apirilaren 26an Gernikan harrapatu zuten francotarrek, frantses kazetari batzuei herri hartan gertatutako bonbardaketa erakusten ari zitzaiea.

Gernikatik Gasteizera eraman zuten preso. Han hil zuten, Espainia baino Euskal Herria maiteago zuelako.

Lauaxetaren heriotzaren berriak Aita Moreno josulagunak gaztigatu dizkit. Aita Moreno hau izan zen Lauaxeta espetxean bisitatu eta hiltzeko preparatu zuena.

Esan dut: Alfonso Moreno Bilboko josulagunen Egoitzan bi-zi zen, “Corte Ingles” ondoan.

Aita Morenok Gasteizen hiru bat aldiz ikusi zuen Lauaxeta, espetxetzat erabiltzen zuten Karmeldarren etxean. Ez daki Lauaxetak berak deiturik, ala bestela, garai hartan espetxekoen ardura espirituala berak zuelako.

Ikustera joan eta bitan aurkitu omen zuen gelan belaunikaturik, ebanjelioa irakurtzen. Beti pasarte bera irakurtzen ari omen zen. Joanesen ebanjelioaren pasarte hau: “Non vultis venire ad me ut dem vitam”. “Bizia eman diezazuedan, ez duzue niregana etorri nahi”.

Aita Morenorekin ez omen zuen literaturaz hitz egin. Beti erlijioaz.

Beste hitzok ere esaten omen zituen (Aita Morenok koader-no zahar bat erakutsi dit, orduko kontuak dituen, orduan idatziak, berak dioenez). Lauaxetaren hitzok irakurtzen dizkit:

- Si he de pecar el día de mañana, prefiero morir ahora.
- Dios mi padre.
- Jesus vida, Jesus el *único* (Morenoren kuadernoan azpi-marratua).
- Muero contento porque muero con Jesús.
- Confío plenamente en la Virgen.

Pasadizook ulertzeko, gogoan eduki Morenok euskaraz ez zekiela. Hau da, erdarazko hitzok esango zituen Lauaxetak. Bai eta euskarazkoak ere.

Halere, hauxe da egia: dakigunez Lauaxetaren azken poesia Ama Birjinari egin zion eta gazteleraz.

Hil baino lehenago, espetxean zegoela, Aita Morenok esan omen zion:

- Begira, zuk ez duzu gauza okerrik egin, ez duzu borrokan parte hartu. Anaia Banco de Bilbaoko zuzendari dut. Beharbada zure askatasuna lor lezake.

Lauaxetak, ordea, ez omen zuen nahi:

“Ez du merezi. Hiltzeko ez naiz inoiz orain bezain ongi gerturik egongo”.

Ekainaren 24an (1937), hil bezperako arratsaldean, berriz ikusi zuen Aita Morenok.

Biharamunean, 25ean, goizeko 5:30tan atera zuten furgone-tan Karmeldarren etxetik Gasteizko hilerrira. Hamar lagun omen zeuden, hil beharrak eta haien ingurukoak. Horien artean Aita Moreno.

Presoak hilerriko atez kanpora hiltzen zituzten, hormen kontra. Aita Morenok bere gurutzea eman omen zion eta Lauaxetak eskuetan hartu.

Hiltzerakoan lasai-lasai omen zegoen. Gurutzearekin hitz egin omen zuen.

Tiroak tira eta buruaren eskuineko aldean erabat

txikitu omen zioten, garunak atereak eta xehatuak ikusten zitzaizkiola.

Hil eta gero, Aita Morenok hartu omen zituen Lauaxetak zeuzkan gurutzea, domina eta arrosarioa.

BIBLIOGRAFIA

- AITZOL (Jose Ariztimuño): *Idazlan guztiak*. 6 liburuki. Erein, Donostia, 1988
- AITZOL: *Eusko olerkiak*, Donostia 1930, 4-24 orr.
- ALTUNA, Patxi: *Jose M^a Estefania Zabala, S.I.(1889-1942) Maestro de Vascos*. Mensajero, Bilbao, 1990
- ARATXABAETA, B. "Lauaxetaren Ondartza" in *Iker Atalak*, Labayru, 1 (1981)
- ATXAGA, B.: "Lauaxetaren azken eskribuak". *Anaitasuna*, 341(1977)41-43
- Elhuyar. Hiztegi Entziklopedikoa, Usurbil, 1993
- ESTEFANIA, Jose M.: (Lauaxetak bere lanak atera eta eman zuen eritzia) Razón y Fe, 1931
- ESTORNES LASA, B.: *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Literatura*. IV Alea. Auñamendi, Donostia, 197 orr.
- ETXENAGUSIA, K., KORTAZAR, J., ETXEBARRIA, A.: *Euskal Idazleak Bizkaieraz. Antologia, testu azterketak, ariketak*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1980
- JUARISTI, Jon: *Literatura vasca*, Taurus, Madrid, 1988

- KORTAZAR, Jon: "Lauaxeta eta Europako poesia" *Hegats* 4(1991)85-90
- KORTAZAR, Jon: "Lauaxeta gogoan", *Idatz eta Mintz* 2(d.g.)23-26
- KORTAZAR, Jon: *Lauaxeta: biografía política*, Alderdi, Zarautz, 1988
- KORTAZAR, Jon: "Lauaxetaren iturriak dirala eta ohar pare bat" *Idatz eta Mintz*, 5(d.g.)32-33
- KORTAZAR "Lauaxetaren olerkigintzaren ardatzak" in *Jakin* 36(1985)79-98
- KORTAZAR, Jon: *Literatura Vasca, Siglo XX*. Etor, Donostia, 1990
- KORTAZAR, J. *Teoría y Práctica poética de Esteban Urkiaga, Lauaxeta*. Desclée de Brouwer, Bilbao, 1986
- KORTAZAR, Jon, MADARIAGA, J.R. "LAUAXETA: Arrats beran, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1991, 7-18
- LANDA, JOSU: *Gerraondoko poesiaren historia*, Elkar, Donostia, 1983
- LAUAXETA: *Azalpenak*. Labayru, Bilbao, 1982
- LERTXUNDI, A. "Lizardiren bide modernoak", in *Jakin*, 29. (1983), 6-16.
- LIZARDI "Rumbos Nuevos" *Euskadi* 1931.12.30/1.3.
- LIZARDI "Rumbos Nuevos". *Euzkadi* 1931.12.17/1
- MALLONA, A. "Sarrera" in *Urkiaga, E. Azalpenak eta beste 1932*. Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1991,9-41
- MITXELENA: *Historia de la literatura vasca*, 146 or.
- MOGEL "Liburu barri bat: Arrats Beran". *Ekin* 162 (1935)
- MUJICA, Luis M.: *Historia de la literatura euskérica*. Luis Haranburu Editor. San Sebastián, 1988
- ONAINDIA, Santi: *Urkiaga'tar Estepan "Lauaxeta". Olerki guztiak*. Bilbao, 1985
- ONAINDIA, Santi: Euskal literatura IV, 145-157
- ONAINDIA, Santi: "Esteban Urkiaga ta Basaraz 'Lauaxeta' (1905-1937)". *Gaiak* 4(1977) 617-633
- ONAINDIA, Santi: "Urkiaga'tar Estepanén bizi-urratsak", in *LAUAXETA: olerkiak*, Etor, San Sebastián, 1974

- PENADES BILBAO, JOSU: *Lauaxeta, historian bezurmamituriko si-nesmena*, Deustu Unibertsitatea, 1996
- SAN MARTIN, JUAN: *Escritores euskéricos*. La Gran Enciclopedia vasca, Bilbao, 1968
- SARASOLA, Ibon: *Euskal literaturaren historia*, Lur, Donostia, 120 orr.
- URKIAGA, E.: *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1985. Jon Kortazarren sartera
- URKIAGA'TAR Estepan (Lauaxeta): *Olerkiak*, Etor, Donostia, 1974
- URKIAGATAR Esteban ('Lauaxeta'): "Arrats beran" El sol 1935-07.27/2
- VELEZ DE MENDIZABAL, J.: *Iokin Zaitegi*. Egilearen argitalpena, Arrasate, 1981
- VILLASANTE, LUIS: *Historia de la literatura vasca*, 346 orr.
- ZARATE, Mikel: *Bizkaiko euskal idazleak*, Seminario Ikastetxea, Derio, 1970, 224 orr.

Gotzon Garate